Gascones eta ingurua

Mendizaleok aitzaki guti behar dúgu mendietako herrixkak bizitatzeko, baina hori ez zen izan Somosierratik behera aurkitzen diren lehen herriak bisitatzeko zio bakarra. Avila-ko Mingorriaren euskal jatorriaz asko hitz egin da; baina nik dakidanez, inork ez du ezertariko azterketarik egin Gascones eta bere ingurua.z.

*Gascones deritzan herria, Madrideko probintzian, Somosierratik hurbil dago. Erromatarren garaian, César bera izan zen Akitania Keltengandik bereizteaz Gaskoinak euskalduntzat jo zituena (edo, hobeto esan, euskaldunen kideko). Gaur egun nornahik dakigu linguistikaren agiriek, fonetika legeetan bereziki, **languedoc** parteko hizkuntzegandik bestelako zenbait fenomenoagertzen dituela gaskoinak, euskararekin zer ikusia dutenak hain zuzen. Baina, izena bera ere, indoeuropearrek jarri ziguten **vascón**-etik emen dator **gascón** bera ere. Puntu hau, besteak beste, aski argi jarria du Jacques Alliéres jaunak. Eta, fonetika legea aipatu dudanez, baita ere oroitu bearrekoa dugu gaskoinek **languedoc** partekoekin duten bereizkuntza nabarmenetako bat **f** letra **h** bihurtzearena dela, euskararen izateak hortaraturik, gaztelerari eragin zion bezala. Gure jendea noiz konturatuko da euskararen jatortasunetakoa dugula **h** letra?*

Baina, gai hoiek beste baterako utzi ta noan Somosierratik Buitrago de Lozoya-ra bitartean aurkitzen diren gauza bitxiak aipatzera.

Somosierrako lepotik behera, bereala dugu izen bera duen herria, bertako parrokia, Elurretako Amaren izenean dago eta ez dakit noiztik Begoñako Amaren kopia bat ere badago eta, Madrid-eruntz joatean edo handik itzultzean, bilbotar asko gelditzen da otoitz egiteko.

*Atsegina da Gaztelako lur lehorretan holako inguru hezeak aurkitzea. Bidean atsedena hartu nahi duenak aukera ona du. Baina arte zaleentzat bada bestelako zerbait ere. Bidean goazela eskubira, Braojos deritzan herriko parrokian Gregorio Fernándezen erretaula eder bat dago. Bere emaztea herri hortakoa omen zen eta horregatik omen dago holako herri tipi batean hain obra ikusgarria. Gregorio Fernández gallegoa zen, errege Feliperen eskariegatik Valladolid-en lantegia jarri zuena eta garai batean euskararen eraginez **f** letra **h** bihurtzeko hartu zuen joeragatik Fernández Hernández-era aldatu zioten. Braojos-ko erretaula 1633an bukatua da. Erdi erdian aingeruz inguratutako Ama Birjina eder bat du eta bere azpian San Idelfonsori mezajantzia ipintzea. Beste eskultura eder batzuk ere baditu, denak txukun polikromatuak. Parrokia hontan pizkunde garaiko Ama Birjina eder bat ere bada, beste bat erromanikoa restaurazioz zeharo hondatua. Baina erortzeko zorian dagoen San Sebastianen erretaulapean bi ohol, flamendar-gaztelera eskolakoak, erretaula zaharren baten zatiak eta zenbaiten eritziz Pedro Berrugueterenak.*

Handik beheratxuago dago Gascones deritzan herria. Ez dugu zalantzarik bere antroponimoa euskal jatorrikoa dela. Izen hori noiztik datorren jakitea ezta hain erraza. Abelzaintza da bizibide nagusitzat, baina ganaderia beheraka etorri den neurrian, azken urtehotan, hustutzera dator herri hau. Izan dituen aldakuntzak gora behera, bertako etxe zaharren arkitekturak badu Nafarroako mendi aldekoen taxura. Interesgarria litzake etnografia ikerketa. Behar bada mairuak inguru haietatik botatzean joanak izan daitezke euskaldunak eta nork daki Buitrago de Lozoyan jaun izateaz gabetu ziren Mendozatarren leinukoek eramanak ez ote ziren, inguru haiek kolonizatze alde.

Beste gauza bitxi bat, zera da, bide nagusiaren bestaldera, handik hurbil den Montejo de la Sierra deritzan herri basoetan Europa guziko pagadirik hegoaldekoena aurkitzen dela. Horregatik, Sitio Natural de Interés Nacional izendatua da. Garai batean hara joan ziren euskaldunek landatutako basoak ote?

*Buitrago de Lozoya da inguru haietako hiririk garrantzitsuena, erromatarren **Litbrum** zeritzan hiritik sortua. Alfonso VI.ak XIV. mendean errekonkistatua eta arabar jatorrizko Mendozatarren feudo bihurtua. Oraindik haien gaztelu aski hondatuaren dorreak ageri dira bertan. Hormatzar hoien artean bizitzan zen zenbait urtez Iñigo de Mendoza, Santillanako markesa eta hiri hortako jauna. Palencia-ko Carrión de los Condes-en sortua bazen ere, jatorriz arabarra.*

Madrid-era autoz doazen euskaldun historia, arte eta etnografiazaleentzat paraje interesgarriak dira. Gainera, Euskal Herria uzteaz, bide guzian ez dugu aurkituko holako toki politik. Baina, noizbait norbait arduratu behar litzake alde horren ikerketa sakon bar egitera, Avila aldeko Mingorria baino interesgarriagoa iduritzen zait.

Juan SAN MARTIN

El origen vascó de Mingorria se ha aireado muchísimas veces, en ocasiones hasta con versiones dudosas; pero no se sabe por qué no se ha ocupado nadie del pueblo Gascones de la provincia de Madrid, siendo en su origen, gascón, derivado de vascón. Este pueblo, por su nombre y situación, siempre me llamó la atención. Pero no fue éste el único motivo para detenerme a visitar durante un viaje reciente realizado por carretera a Madrid. Y he aquí una serie de curiosidades que justifican un alto en el camino.

Gascones se sitúa entre el pueblo de Somosierra y el histórico poblado de Buitrago de Lozoya. El pueblo de Somosierra, que se encuentra nada más doblar el puerto de su nombre, tiene la misma altura sobre el nivel del mar que el monte Gorbea y no estoy seguro de si ésa fue la razón por la que se instaló en su parroquia una réplica de la Virgen de Begoña. Es parada obligada para muchos bilbaínos que de paso desean orar ante su patrona. Sin embargo, la Iglesia está dedicada a Nuestra Señora de las Nieves, como corresponde a aquéllas alturas.

En las inmediaciones se pueden contemplar agradables paisajes de montaña, y para el aficionado a las artes, un lugar divino de visitar es la iglesia parroquial de San Vicente Mártir en Braojos, donde existe un retablo, obra de Gregorio Fernández, fechado en 1633. Precioso trabajo instalado en la capilla de los Vargas. Preside una Inmaculada rodeada de ángeles, y debajo, en su parte central, se representa la escena de la imposición de la casulla a San Idelfonso, y que constituye una de las realizaciones más sobresalientes del artista gallego avecindado en Valladolid. Se cree que hizo este retrato para Braojos porque su esposa era natural de este municipio. Además, entre otras obras artísticas, hay dos esculturas exentas de la Virgen, una en el retablo colateral de la parte del Evangelio, de estilo plateresco (aunque esté enmarcada en un retablo barroco) y la otra románica, en el presbiterio, desfigurada por una desgraciada restauración. En la pared meridional de la nave hay un retablo barroco donde se ve a San Sebastián, que está a punto de desplomarse si urgentemente no se toman las medidas oportunas por el efecto de carga ha sufrido a dos tablas encajadas en su lugar con figuras pintadas de San Antonio, de la escuela castellana flamenca, y que algunos las atribuido a Pedro de Berruguete.

Pero retornando a Gascones, sus inmediaciones, hay varios sitios de interés para cualquier turista. El antropónimo Gascones no ofrece ninguna duda sobre su origen vasco. Más difícil resulta la data, que posiblemente habría que remontar al período de la Reconquista. Este pueblo, en su decadencia por la fuerte emigración de los últimos años, es sólo aparentemente ganadero. A pesar de las transformaciones que se observan en sus edificios más antiguos, el visitante vasco podrá identificar el tipo de construcción de la montaña de Navarra.

Es curioso que no muy lejos de Montejo de la Sierra, otro lugar declarado Sitio Natural de Interés Nacional, por ser también el conjunto de bayas más septentrional de Europa. Pastores vascos que fueron a establecerse durante la reconquista? No sería de averiguar.

Las posibles respuestas a esta incógnita tal vez las habría que buscar en la antigua demarcación de la población más importante de la zona, Buitrago de Lozoya; que fue la ciudad romana "Litbrum", reconquistada en el siglo XIV por Alfonso VI y pasó al dominio del linaje de Mendoza, de estirpe alavesa. Entre los muros de su castillo vivieron unos años el marqués de Santillana, señor del lugar, que, como se sabe, era de la familia de los Mendoza.

Hay materia para el investigador que puede semos de gran interés para la historia de los viajes.

Bi gipuzkoar Bizkaiko kontserbatorioan

Euskalerriko Kontserbatorioetatik hiruk azken urte barruan zuzendari berriak hautatu dituzte. Donostiakoa izan zen igaz erdi bizkaitar bat zuzendaritzarako aukeratu zuena, Tomás Aragües Bernad. Gero, aurten, Gasteizkoan Karmelo Alonso Bernaola, bizkaitarra, jarri zen bertako zuzendaritzan. Eta egunotan, azkenez, gipuzkoar bat hautatu du Bizkaiko Diputazioak Juan Krisostomo Arriagaren izena daraman Kontserbatorioa zuzentzeko. Bada Euzkalerriko musika irakaslegoan barne migrazio bat aberasgarria noski.

Donostian daukagun zuzendaria erdi bizkaitarra dela esan dut. Jaiotzaz bakarrik da kanpotarra, bost urte ziruelarik etorri zaigun Bizkaiko Barakaldora eta. Aita, Tomás Aragüés Bayarte (1903-1957) Barakaldoko Musika Bandaren zuzendaria izan zen hautatua 1940an eta txikitatik Tomás semeak arnastu zuen Bizkaiko musika giroa. 1946an aitak Bizkaiko Kontserbatorioan Harmonia Katedra irabazi zuen eta bertan egin zituen ikasketak musika estudio guztiak. 1973an Donostiako Kontserbatorian Solfaketa eta Musikaren Teoria katedra irabazi ondoren, hor dugu orain irakaslegoaren buru eta goi mailako Kontserbatorioaren zuzendari.

Gasteizera ere biskaitar bi joan dira azken urtean, lehen aipatutako Karmelo A. Bernaola, zuzendaritzan jarria, eta Jose Ignacio Sanz, organo irakaslea. Gaztea da Sanz organularia eta hiru probintziak ezagutu ditu: jaiotzez eta musika hezkuntzaz, bilbotarra, nahiz eta organo karrera Donostian egin. Bizkaian, Guridi Madrilera joan zenetik eta Zubizarreta heriotzak eraman zigunetik, ez zen organorik irakasten; beraz, Esteban Elizondo irakslearekin egin zituen Sanzek Donostian organo estudioak. Bizkaitik Donostiara eta titulua lortu ondoren Gasteizera joan zaigu Jose Ignacio Sanz, organulari trebea. Bernaola oso ezaguna denez, ez du hemen aipamenik behar.

Baina Bilbon, Bizkaiko Kontserbatorioan gertatzen denak irazkintxo bat merezi du. Pirfano joan zenetik, oso zatituageratu zen irakaslegoa eta eztabaida gorriak izan dira ordutik hona. Pilar Iturburu eta Juan Esteve izan dira azken lau urteotan zuzendariak baina gauzak ez dira zuzendu eta bi taldeen ikusiezinak, behar bada, gehiago goritu dira. Azkenean, Urriaren 30an, Juan Cordero Castaños Kontserbatorioaren zuzendaritza eramateko izan da aukeratua. Bertoko irakaslegotik datorkigu, Harmonia irakasle baita; harmonia irakaskuntzaren koadroa osatzeko, Rafael Castro dugu hemen Katedratikoa eta Juan Esteve hirugarren irakaslea.

*Juan Cordero Castaños Elgoibarren jaio zen 1927an eta Donostiako Kontserbatorioan egin zituen bere lehenengo estudioak, Ramon Usandizaga, Beltran Pagola eta Luis Urteaga, beste batzuen artean, maisu zirelarik. Gero Zaragozan bukatu zituen bere musika estudioak eta Guridirekin, Madrilen, hobatu zituen azken trebetasunak. Garellanoko Musika Bandaren zuzendaria izan zen urte askotan eta herriko musika bizkortu nahian, txistuak sartu zituen Bandan. Denok ezagutzen dugu Errenteriako Andra Mari Koralak abestutzen duen **Defendituko** dut, Gabriel Areztiren poema batekin egindako musika lana; Bizkaiko Aurrezki Kutxak eratu zuen I. Konposaketako Lehiaketan, lan honekin irabazi zuen Juan Corderok lehen saria 1976an. Eta gero, berriz, II. Lehiaketan, 1978an, **Duntzan Dantzan** lanarekin irabazi zuen lehen saria. Lan bi baizik aipatu ez arren, beste asko izan dira eta izango dira Corderok eman eta emango dizkiguna, nahiz eta orain Kontserbatorioaren zuzendaritzarekin oso lanpetua izan. Baina badu Corderok adore eta gogoa gauzak zehatz eta mehatz egiteko eta ene ustez, gizon apala eta zintzoa denez gero, lortuko du zauri zolduak sendatzea.*

Bi gipuzkoar aipatu ditut hasieran. Bigarrena bergarar gazte bat dugu: Pedro Guállar Otazua; organularia. Gasteizerako Bizkaiak zuzendaria, Bernaola, eta organo irakaslea, Sanz, eman baditu, hará non Gipuzkoak eman dizkion bi kargu horiek betetzeko bere seme bi: zuzendaritzarako Juan Cordero eta organo katedrarako Pedro Guállar.

Organo katedrak beti izan dira garrantzizkoa Euskalerrian eta gure eleizetako organulariak badute zeresanik gure musikaren historian. Baina Zubizarreta Bilbon hil zenetik, bizkaitarrak organoa jotzen ikasteko Donostiara, Gasteizera edo Iruñeara jo beharrean aurkitu dira. Bazen garaia Bilbon katedra horren arduradun bat jartzeko eta Diputazioaren erabakiz, azkenean, lehiaketa batetara izan dira deituak organulariak. Egun asoko lan nekegurri bat egin ondoren, Pedro Guállar bergararrak irabazi du katedra hori. Pedro Guállarrek Donostian egin zituen organo estudioak eta 1978an bukatu zituen lehen saria irabaziz. Hainbat organo kontzertu eman ditu eta datorren Azaroaren 19an, Organo Aste barruan, Gernikan azalduko zaigu Guállar, orain katedratikoa, bertako Walcker organoan kontzertu bat ematera. Ongi etorria izan bedi Guállar Bizkaiko eremura, zereginik ez zaio faltako eta.

José Antonio ARANA MARTIJA

Tres de los Conservatorios del País Vasco han elegido nuevo director en el último año: Tomás Aragües en San Sebastián, Carmelo Bernaola en Vitoria y Juan Cordero en Bilbao. Curiosa y enriquecedora es esta migración de músicos en nuestra tierra.

Tomás Aragüés, nacido en Teruel, es vizcaíno en su formación musical. Su padre, Tomás Aragüés Bayarte (1903-1957) ganó por oposición la dirección de la Banda Municipal de Baracaldo en 1940 y la cátedra de Armonía del Conservatorio Vizcaíno en 1946. Con cinco años vino pues a Vizcaya el joven Aragüés y se formó musicalmente a la sombra de su padre. En 1973 ganó la cátedra de Solfeo y Teoría de la Música en San Sebastián y de ahí, el año pasado, pasó a regentar la dirección del centro donostiarra.

De Vizcaya han salido también, esta vez a Vitoria, el director de su Conservatorio, Carmelo A. Bernaola, y el catedrático de órgano, el joven José Ignacio Sanz. De Bernaola no es necesaria mención particular alguna pues es suficientemente conocido. Sanz, que sigue la carrera musical en Bilbao, a la enseñanza de órgano en Madrid, que Guridi se fuera a Madrid y Zubizarreta, tuvo que ir a Madrid a estudiar con Esteban Elizondo y nada su carrera, al poco tiempo, la cátedra de órgano de Vitoria.

En Bilbao han quedado, desde que marchó Pirfano, varios profesorado esta dividido en dos. Pilar Iturburu ha podido arreglar el tiempo en que han pasado de dirección del Conservatorio de la Diputación ha nombrado a Juan Cordero Castaños, profesor, junto juntamente con el catedrático de natura que es Rafael Castro, profesor, el mencionado Esteban que Cordero vaya, con todo, arreglando este asunto en un futuro.

Juan Cordero nació en 1927. Hizo sus estudios en el Conservatorio de San Sebastián y los de Zaragoza. Vino a Bilbao en 1946 con la Banda de Música del Ejército. Garellano en la que interpretaba una Banda de Txistu. Ganó en sus muchas cibas. Por los premios del Conservatorio Vizcaíno, la Caja de Ahorros Vizcaína, 1978: **Defendituko dut**. **Duntzan**-Llega al Conservatorio en un momento delicado y difícil. Tendrá que trabajará para elevarlo al nivel que merece.

El otro guipuzcoano que nos ocupa es Pedro Guállar Otazua, de Bergara y que cursó estudios en la Bilbaína. La plausible decisión de la Diputación de Vizcaya de dotar de un órgano a su Conservatorio, ha supuesto la ayuda de una oposición que, en el día de ejercicio, ha quedado bastante desierta. Dos cátedras de Bilbao quedaron cubiertas, pues, con dos de los mejores guipuzcoanos. Guállar, que ya ha estado en la escuela de Bilbao. Bienvenido sea, que, si no falta en la escuela, tan necesario para nuestros conservatorios de nuestra música vasca.

LA CONTRATRACION INTERNACIONAL: MERCANCIAS, INVERSIONES, TECNOLOGIA

Cursos Monográficos patrocinados por el Departamento de Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en las tres Capitales

Organizados por: Cámara de Comercio e Industria de Alava, y Cámaras de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao y Guipúzcoa.

En San Sebastián: Martes o miércoles del mes de noviembre, de 10 a 14 horas, y de 16 a 19.30 horas.

Temario:
- La cesión de tecnología como exportación.
- Contratos internacionales de exportación.
- Inversiones en el extranjero.
- Agrupaciones temporales de exportación.
- El arbitraje comercial en los contratos internacionales.

Ponentes: Expertos residentes en el País Vasco y en Madrid.

Asistentes: Directores gerentes, Directores de exportación y otros, responsables en las correspondientes empresas, de los temas a tratar. Plazas limitadas.

Información: En las respectivas Cámaras. Para San Sebastián Aguirre Miramón, 2. Teléfono: 27 21 00.